



Angelos TZORTZINIS | AFP

IKUSMIRA

KRISIA SORTZEA AGINDUTAKOA EZ BETETZEA BAINO HOBEA OMEN

Nork du benetako errua? Egoera gordin bati aurre egiteko agindutakoa bete -edo betetzerik izan- ez duenak ala egoera gordin horretara bultzatu gaituenak? Iragan igandean Greziako hautesleek erantzuna eman zuten hauteskundeetan, Kyriakos Mitsotakis eskuindarra lehen ministro izendatuz. Alexis Tsipras zigortu

zuten, baina berak gidatutako Syriza ezkerreko koalizioa ez zen izan galtzaile bakarra. Lesbos eta gainerako irletan errefuxiatuen alde diharduten gobernu kanpoko erakundeak beldur dira gobernu berriak kanporatze prozedurak agindu dituelako. Urriak badira ere, bizirauteko gizarte laguntzak behar dituen jendeak ere aurki sumatuko ditu Mitsotakisek iragarritako zerga jaitsieraren ondorioak. Syrizarik gauza asko egotzi ahal zaizkiolako, baina ez behintzat Grezia hondoratu izanaren erantzukizuna. Horrek izen propioak ditu eta, Papandreu sendiarenarekin batera, Mitsotakis beraren familiarena ere leku nabarmenean dago zerrendan. Grezia gaixoa. D. Lazkanoiturburu